

Borroka armatua Euskadin (1967-2011)

Emilio Lopez Adan
Maiatz argialetxea, 2.442 or.
Baiona, 2021


Aurreko Emilio Lopez Adanek —«Beltza» legez ezagutzen dugu askok— borroka armatuarekin lotutako ekintza bakoitza aztertu du 2021ean Maiatz argialetxeak argitaratutako *Borroka armatua Euskadin, 1967-2011* lanean. Bertan, euskal gatazkaren testuinguruan gertatutako 842 ekintza hilgarriak aztertu ditu ikuspegi estrategiko eta etiko batetik, indarkeria politikoaren inguruko eztabaidari oinarri bat eskaintzeko asmoz.

Lopez Adanen lana hiru liburukitan dago banatuta, 600 orrialde ingurukoa bakoitza. Lehenak 1967tik 1980rako gertakari eta ekintzak aztertzen ditu; bigarrenak, 1981etik 1990erakoak; eta azkenak, 1991tik 2011rakoak. Kapituluak urteka eta kronologikoki daude banatuta, kapitulu bakoitzak urte bateko gertakariak jasotzen dituelarik.

Emilio Lopez Adan

Borroka armatua Euskadin

1967-2011

Lehen liburukia
1967-1980*maiatz*

Emilio Lopez Adan

Borroka armatua Euskadin

1967-2011

Bigarren liburukia
1981-1990*maiatz*

Emilio Lopez Adan

Borroka armatua Euskadin

1967-2011

Hirugarren liburukia
1991-2011*maiatz*

1. irudia. *Borroka armatua Euskadin (1967-2011)* argitalpenaren azalak.

Emilio Lopez Adan 1946an jaio zen Gasteizen. Bere ibilbide militanteari dagokionez, 1964an ETAn sartu zen, eta 1974an irten zen Langile Frontearen irteerarekin batera. 1968an erbestera joan behar izan zuen, eta 1976an itzuli zen Bruselatik Angelura. Harrezkero, lotura estua izan du LAIA alderdiarekin. 2003tik 2012ra, Ipar Euskal Herriko Abertzaleen Batasuneko kidea izan da. Horrez gain,

hainbat liburu argitaratu ditu, Euskal Herria ikuspegi historiko, sozial eta politikotik ezagutzeko ezinbestekoak direnak, aipatzen ari garen idazlana bezalaxe. Haren idazlanen zerrenda luzea da, baina hauexek izan daitezke aipagarrienetako batzuk: *El Nacionalismo vasco (1876-1936)*, *El nacionalismo vasco y clases sociales (1976)*, *El nacionalismo vasco en el exilio (1936-1960)*, *Del Carlismo al Nacionalismo burgués (1978)*.

Horrez gain, Lopez Adanen ibilbideari eta pentsamoldeari buruzko liburua idatzi zuen Pako Sodupe 2020an, EHUk eta UEUk argitaratua.

Ikerketa-lanaren helburuez

Emilio Lopez Adanen ikerketaren helburua da, *Larrun* aldizkariaren 261. zenbakian eta liburuaren hasierako azalpenetan argitzen duen legez, «interpretazio ideologiko eta politikoetatik» at kokatzen den ikerketa egitea, eta «helburu, estrategia eta etikaren arteko artikulazioa ikertzea, egin zenaren zentzua argitzea». Ez da lan erraza, indarkeriaren inguruko marko diskurtsiboak errelatoaren borrokaren barruan artikulatzen diren honetan. Izan ere, jarrera politiko eta ideologikoak bete-betean baldintzatzen du borroka armatuaren inguruko diskurtsoa, normala den moduan.

Ikerketa errelatoaren borrokatik kanpo kokatzeak ez du esan nahi haren helburuak ikerketaren muga aseptikoetan agortzen direnik, sortutako ezagutzak inplikazio politikorik ez balu bezala. Hain zuzen ere, Lopez Adanek esaten duenez, «helburu nagusia da gogoratzea zein izan ziren ekintzak, haiek egiteko garaiko arrazoi politikoak, eta zein izan diren garaiko protagonisten kontzientzia eta interpretazioa, jende horren duintasuna berriz aldarrikatzeko. Jende horrek borrokatu zuen askatasunaren alde». Okerrak izan baziren, beharrezkoa da horiek ere argitzea eta haien kritika egitea, etika iraultzailean oinarrituta, askapen-prozesua aurrera eramanez ahal izateko.

Funtsezko lana da, beraz, Euskal Herriaren etorkizuna zentzu iraultzailean eraiki nahi duenarentzat, gure orainaren parte den iragana hobeto ulertzeko gakoak eskaintzen dituelako. Izan ere, balizko prozesu iraultzaile baten aurrean, beharrezkoa da indarkeria politikoari eta borroka-metodoei buruzko hausnarketa sakon bat, borroka molde ezberdinen baliagarritasun estrategikoaren eta etikoaren inguruan sakontzea ahalbidetzen duena. Baliteke hori izatea militante-belaunaldi berriok behar dugun hausnarketa mota, gure estrategia eta borroka-metodoak ahalik eta modu eraginkorrenean pentsatu ahal izateko, etika iraultzailea oinarri, iraganaren idealizazioan edo arbuizate hutsean erori gabe. Iraganeko esperientzien ahalmen hezitzailea gauzatuko da soilik iragana ahalik eta modu objektiboenean lantzen saiatzen bagara. Beste modu batera esanda, iraganetik zerbait ikasi ahalko dugu, ekintza bakoitza era kritikoan baloratzeko gaitasuna baldin badugu. Horrela, etorkizuneko hautuak determinazio, heldutasun eta eraginkortasun handiagoarekin egin ahal izango dira.

Lopez Adanen lanak oinarri batzuk eskaini nahi dizkio edozein mugimendu iraultzailek egin beharreko eztabaida kolektiboari, ekintzen zentzuari buruzko ikerketan oinarrituta. Horren harira, badu hipotesi bat buruan, hitzaurrean adierazten

duena: «ETA erakundearen historian, momentu batetik aurrera, oinarrizko etikari buruz distantzia hartze bat agertzen dela, eta, horrekin, ETArekin lehen jarrerekin hauste bat gertatu zela, ondorio estrategikoekin». Hori da Emilio Lopez Adanek lanean zehar baieztatu nahi duen hipotesia. Militante eta ikertzaile asko ez daude ados hipotesi horrekin, eta ikertzaile askok, «hausturaren» ordez, egokitzearen teoria defendatu izan dute. Ikerketa-lan honek eztabaida horri egiten dio ekarpena.

Horrenbestez, zenbaitetan, irakurlea ez da ados egongo zenbait gertakariaren inguruko ikuspegiekin, besteetan informazioa ez dela nahikoa irudituko zaio. Baina, behintzat, irakurleak aukera izango du iritzi eta jarrera horietan hausnartzeko, eta, beharbada, bere posizionamenduei sendotasun handiagoa emateko.

Ikerketaren metodologia

Ikerketarako erabilitako metodologia gertakariaren azterketan oinarritzen da, «errealitatean gertatu zenari garrantzi handiena emateko». Ildo horretan, ez dio interpretazioari buruzko borrokari beste buelta bat eman nahi izan. Horren ordez, hilgarriak izandako gertakariak edo ekintzak (alde batekoak zein bestekoak) ikertu dira urtez urte eta banan-banan, eta bakoitzaren atzean dauden elementuen eta faktoreen elkarreaginak, egoera konkrituaren azterketei eta inguruko eztabaida etiko eta estrategikoei erreparatuta.

Horretarako, talde armatuek eta estatuak eragindako hildakoen zerrenda kronologikoa abiatzen da, José Pardines eta Txabi Etxebarrietaren hilketetatik hasita. Erabilitako informazio-iturriak honakoak dira: kasu bakoitzari buruzko testuak, hedabideen informazioa, eragileen azalpenak (talde armatuenak zein estatuena), auzitegi-tako ebazpenak, ikerketak eta testigantzak. Horiei, jasotako informazio guztia partziala den neurrian, ikertzaileak bere interpretazio propioak gehitu dizkie.

Modu horretan, ikerketa ikuspegi kritikotik egin nahi izan du Lopez Adanek, aseptizismoan erori gabe. Aipatu dugunez, berorrek aitortzen du indarkeria politikoaren inguruko jarrera estrategiko eta etikoak badituela alde aurretik, *Terrorismo eta biolentzia iraultzailea* liburuxkan azaltzen dituenak.

Zenbait argipen

Gertakari eta ekintza hilgarriaren azterketarekin hasi baino lehen, zenbait argipen terminologiko eskaintzen dira. Hasteko, Lopez Adanek ekintzen arrazionaltasuna aztertu nahi du, estrategia iraultzailea eta garai bakoitzeko azalpenen ikuspegitik. Estrategiaz ari denean, labur esanda, zera izango litzateke: «Ekintzek zer gaitasun zuten herri sostenguari atxikitzeko eta etsaia gaingitzeko edo makurtzeko». Hala, «marginatuen psikopatologia» edo «arrazionaltasun kriminala» bezalako ideiak baztertu nahi ditu Lopez Adanek.

Ekintzak kalifikatzeko orduan, beraz, irizpide etiko eta estrategikoen arabera egin da, eta «terrorismoa», «atentatuak» eta «erailketak» gisako terminoak baztertu egin dira kasu gehienetan, ezker abertzalearen terminologia militantea baliatuz, baina ez beti. Irizpide nagusia biktimak errepresioan duen inplikazioaren arabera da.

«Terrorismoa» herri xehearen aurkako ekintzak dira, inplikatu gabekoen aurkakoak. Era berean, zapalkuntzaren agenteen aurkakoak «ekintzatat» hartzen dira, eta herri xehearen aurkakoak «atentatu». Bereizketa hori polemikoa suertatzen da indarkeria politikoa helburu askatzaileekin erabili dutenen edo erabiltzea defendatu dutenen artean. Egia da askapenaren alde jardun duten taldeen ekintzen helburuak ez direla inoiz zibilak hiltzea, eta aintzat hartu behar da, baina horrelakoak gertatu gertatu dira. Hortaz, etika iraultzailearen ikuspegitik, beharrezkoa da horiek gertakariak ulertzea.

Iragazki horri pisu handia ematen dio Lopez Adanek, eta ekintzen selektibitateari buruzko arazora eraman ditu, ondorio estrategikoez gain, militanteen oinarri moralekin eta etika aplikatzeko jarrerekin. Horretarako, biktima bakoitzak errepresioan izandako inplikazioari begiratzen dio. Zein biktima zegoen errepresioan inplikatuta eta zein ez? Horren arabera, hiru kategoriatan sailkatu ditu talde armatuen ekintzen biktimak: inplikatuak, dudazkoak eta inplikatu gabeak. Ez dira gutxi sailkapen horren atzean sortutako zalantzak eta hutsuneak. Hala ere, bestelako talde armatuekin konparatuta, badirudi Euskal Herriko talde armatuek ahalegin berezia egin zutela ekintzak errepresioan inplikaturako pertsonen aurka zuzentzeko.

Ondoriorik gabeko ikerketa?

Arraroa suertatzen da ondorio nagusiak azaltzen dituen azken kapitulu baten gabezia, ikerketa-lanaren emaitzak borobildu eta ikerketa probokatzen duen hipotesiaren egiaztapena berresten duena. Kontuan hartu behar da informazio pilo bat biltzen dela, eta egileak ondorio batzuk atera arren, posiblea da oso bestelako interpretazioak posible izatea. Azken ondorioetan, autoreek joera dute lanaren ideia eta interpretazio zuzenak eskaintzeko, nolabait esatearren, eta horrek asko baldintzatzen ditu lan osoaren inguruko hausnarketak. Akaso, irakurlearen esku utzi nahi izan du lan hori, norberak atera ditzan bere ondorioak, ahalik eta modu kritikoenan?

Dena dela, lan hau akonpainatu duten arrazoiez, hausnarketez eta abarrez gehiago jakiteko, 2021eko martxoko *Larrun* hilabetekari monografikoan, Xabier Letona kazetariak elkarriketa bereziki argigarria egiten dio gure egileari. Bertan, idazlan honi eta bere iritziei eta jarrerari buruzko argipen ugari ematen ditu Lopez Adanek.

Eki Etxebarria Respaldiza